



FUNTSEZKO JARDUERAK

EcoBook enpresak burutuko dituen funtsezko jarduerak 5 dira: baloratu beharreko zerbitzuak eskaintzen dituzten tokira joan, bildutako informazioa ofizinan landu eta balorazio sendo bat egin, web orrian argitaratu, web hori denbora guztian eguneratua mantentzen saiatu, eta azkenik, enpresaren publizitatea.

Lehenengo jarduerari dagokionez, esan beharrik ez dago honako hau dela prozesu guztiaren ekintza esanguratsuen. Azken finean hau da proiektuaren oinarria. Horretarako, aditu kopuru jakin bat joango da zerbitzuak eskaintzen dituzten toki hartara eta langileei galdetuz, bezeroei galdetuz, lekua ongi begiratzuz, aurreko urtetako txostenak jasangarria denarekin alderatuz eta egun batzuk horretan jarduten igaro ondoren, informazio nahikoa izango dugu hurrengo jarduera burutzeko.

Funtsezko bigarren jarduera gure irizpide eta jasotako informazioaren arabera balorazio sendo bat egitea izango litzateke. Ofizina bertan biltzea da behin informazioa edukita egin beharko genukeena. Bertan aditu talde osoak toki bakoitzari merezi duen denbora dedikatuko dio balorazioa ahalik eta landuen eta sendoena izan dadin. Behin balorazioa prest egonda, web orriataz arduratzen den taldearen ordua iritsi da.

Hirugarren jarduera nagusia argitaratzea da, hau da, web orriataz arduratzen diren langileek, adituen artean sortutako balorazioa argitaratu beharko dute bezero guztientzat ikusgai egon dadin. Horrela gure bezeroek ingrumenarekin konpromezua hartzen duten, eta beraz, jasangarriak diren erreserbak egin ahal izango dituzte zainketa honetan lagunduz.

EcoBookek enpresa gisa egin beharreko hurrengo ekintza eguneraketarena da. Ezinbestekoa izango da enpresak talde bat edukitzea web orria etengabe eguneratua mantentzeko. Ekintza honek nolabaiteko seriotasuna emango dio proiektuari eta web orri fidagarri bat eskaintzen ari garela zihurtatuko gara.

Burutu beharreko funtsezko azken jarduera enpresaren publizitatea da. Planteatutakoak nolabateko ospea izan dezan, nahitanahiezkoa da sare sozial eta komunikabide desberdinetan gure zerbitzuen berri ematea.